

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

Euskara ikasteko diru laguntzak /08

INDUSTRIALDEA

Hasi dira hotela eraikitzen /09

LEINTZ GATZAGA

Ate irekiak Gatz Museoan /10

URKULUKO PROIEKTUA

LURRALDE ZATIKO PLANAK KEZKAK
SORTU DITU HERRITARRENGAN.
EGUAZTENEAN HITZALDIA
EMANGO DUTE KEZKAK ARGITZEKO.



GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 24
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

DOMEKA, 25
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	943 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxio ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTZAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Deiak	112
Eskuale Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 53 47 20
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: AOZARATZA
Domekan 11:30ean.

MENDIOLA
Domekan 12:30ean.

GELLAO/IZURIETA/GALARTZA
Hil honetan ez dute izango.

OHARRAK

TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX PAILAZOAK

Bihar, zapatua, izango dira Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak kirol etxean, 17:30ean. *Poxpolin Marisorgin* ikuskizuna aurkeztuko dute. Sarrerak Loramendi EEn, ludotekan eta kirol etxean daude salgai, 3 euroren truke.

LURRALDE ZATIKO PLANAREN GAINEKO HITZALDIA

Zain Dezagun Urkulu herri ekimenak hitzaldia antolatatu du Lurralde Zatik Planaren gaineko informazioa emateko. Urtarrilaren 28an, eguaztena, izango da, 19:00etan, udaletxeke ganbaran.

DANTZA AFRIKARRIN SAKONTZE IKASTAROA

Ikastaroa aste honetan hasi da eta martxoaren 9a arte emango dute, Kurtzebarri eskolan, martitzenetan, 20:00etatik 21:30era. Irakaslea Aisha Tome Burkina Fasoko dantzaria da.

MEDITAZIO IKASTAROA

Sadhana yoga eta psikoterapia zentroak meditazio ikastaroa antolatatu du. Otsailaren 9an hasiko dituzte eskolok, eta Sadhana zentroan bertan emango dituzte 11:00etatik 12:00etara. Izena emateko deitu 616 96 57 95 telefono zenbakira.

LORAMENDIREN AGENDA

ARETOKO DANTZEN IKASTAROA

Urtarrilaren 21etik aurrera eguazteneko emango dituzte aretoko dantzen eskolak, 20:30etik 22:00etara. Izena emateko deitu Loramendi Euskara Elkartera.

ESKULAN IKASTAROA

Eskulan ikastaroa jarri du abian berriro Loramendi EEk. Martitzenetan elkar-tzen dira udaletxe zaharrear, 18:00etan, eta Rosa del Aguila da irakaslea.

ORAINDELA 8 URTE ARETXABALETAN

Markole baserria bota egin zuten, etxeak egiteko

Urtarrilaren 15ean bota zuten Markole. Hormigol armatuz egindako lehenengotako baserria zen, eta kostatu egin zitzairen botatzea. Baserria egondako lekuan, batetik, Ibarra futbol zelaiko aldagelak eta harmaila zati bat egin zituzten, eta, bestetik, Markoleko etxebizitzendako urbanizazio lanak.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Kirrimarria”

Istilua, eztabaida zaratatsua.
—Gaur gabian andra gizonok kirrimarran bat ibillirik izan bia dabe.



GORKA ORTEGA

LIBURUTEGIKOTXOKOA

Beste material batzuk

Gutxi badira ere, liburuez gain, beste material batzuk ere badaude Udal Liburutegian. Azken aldian ale berri batzuk erosi ditugu. Material hauek ez dago Liburutegian bertan ikusterik, ordenagailurik ez dagoelako jendearentzat, horregatik denak etxera eraman behar dira ikusi ahal izateko.

- IPUINEN munduan. 1 [CD-ROM]. 4/6 urte bitarteko haurrendako.
- IPUINEN munduan. 2 [CD-ROM]. 4/6 urte bitarteko haurrendako
- UNTXI txikiarekin jolasten. 1 [CD-ROM]. Haur Hezkuntzako lehen zikloko haurrendako.
- JOLASTEKO ipuinak. 1: 'Bi danborrariak' [CD-ROM]. 6/9 urte bitarteko haurrendako.
- JOLASTEKO ipuinak. 2: 'Ligiko zubia' [CD-ROM]. 6/9 urte bitarteko haurrendako.
- JOLASTEKO ipuinak. 3: 'Gariaren bila' [CD-ROM]. 6/11 urte bitarteko gaztetxoendako
- JOLASTEKO ipuinak. 4: 'Hargina eta lamia' [CD-ROM]. 6/11 urte bitarteko gaztetxoendako.

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

ZORIONAGURRAK



ESKORIATZA
Iban Olalde
14an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Ainara Garcia
19an, 13 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Gurasoak eta anaia.



ESKORIATZA
Manex R. Agirregabiria
20an, 15 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Ines Pagaldai
20an. Zorionak eta urte askotarako, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Julen Agirregabiria
23an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Leire Lozano
23an, 18 urte. Zorionak eta urte askotarako, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Mikel Zumalde
27an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, lagun guztien partetik.

BABESLEA

PHOTOSYNTHESIS

argazkilaritza

35mm, APS eta digitalen errebelatuak 24 orduan. Tamaina guztiak.


Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak

Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

MIRVAT

Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak

MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua
Aingeru Guarda pasealekua 41
ESKORIATZA
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05
www.mirvat.com




ATREBENTZIAEZPADA/ Zer moduz doiez neguko beherapenak? Asko saldu dozue?




BIKENE ZUBIA
Zubia oiñetako dendie



ALBERTO ASENSIO
Asensio erropa dendie



Mª JESUS PAGALDAI
Pagaldai opari dendie



HORENCIO ESPESO
Mª Carmen oiñetako dendie



JOSUNE ERAÑA
Zare oparixek eta erropie



ARGELIA LOPEZ
Lie opari dendie

Ondo doiez, bai. Bittorixan zabaldu dauien zentru haundi horretara jentie fan dala be igerten dotzau; baiñe jeneralien ondo doiez, hemen harremana diferentia da-eta.

Gabonak ondo fan die, baiñe beherapenak nahiko xeble doiez. Akaso Gabonetako oporretan diru larregi gastau dau jentiek eta oin... Guk otsailien jarten dittuau eskeintza berezixek.

Trankil doiez aurten beherapenak, igaz baiño trankillau. Lelengo egunetan asko saldu zan, baiñe oin trankil doiez. Pijamak esate baterako ondo saldu die, baiñe oparixek gutxiago.

Ba egixe esan nahiko motel doiez, aurreko urtekin konparaute behintzet. Ez dakit zeatik; batzuk Bittorixara faten dielako esaten daue, beste batzuk eurua-tik dala... ez dakit.

Egixe da oin ez diela lengo jente illerak egitten denda aurrien; beherapenak motelketan doiezela uste dot, baiñe aurtenguek politto doiez. Oin jentiek ez dau rebajetan bakarrik erosten.

Nahiko ondo doiez, bai. Jentiek gauza onak erosten ditto oin. Gauza merkietan ez die rebajak horrenbeste igerten; jentie produktu onen bille etorri da, narruzko poltsen bille.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK KARTOIAK ONDO PILATUTA Birziklatzearen aldeko apustua egin dute herrian azken urteotan. Beira, papera eta plastikoa biltzeko edukiontzia jarri zituzten horiek guztiak biltzeko. Askotan gainezka egoten dira edukiontzi horiek, eta sartzan ez direnak lurrera botatzen dituzte. Batzuek, ordea, asmatu dute birziklatzeko kartoia txukun pilatzen. Ez da askorik kostatuko, gainera. / M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

ASTEAN BEHIN /05

KIROLAK /06

Urkulu Zain Dezagun

Urkulu Zain Dezagun herri ekimenak hitzaldia antolatatu du urtarrilaren 28rako.

Literatura sari banaketa

XV. Loramendi Literatura Lehiaketako sariak banatu zituzten atzo, eguena.

UDA elkarteak batzarra

UDA kirol elkarteak batzarra egin zuen. Presidentea eta batzordekideak berri gura zituen.

ASTEKODATUA

6.284

BIZTANLE AURTENGO LEHENENGO EGUNEAN

Urtarrilaren lean, 6.284 biztanle zituen Aretxabaletak, iaz baino 39 gehiago. Jaiotza gehiago izan ziren heriotzak baino. Herrira 166 lagun etorri ziren, eta herritik kanpora, berriz, 141 joan.

BESTEKEESANA

Basoko lanbideei buruzko erreportaje-an karea nola egiten zuten eta ikazkinen lana ikusiko ditugu, besteak beste. Gure inguruan dauden hainbat elurzuloen berri ere emango dugu.


Badugu oraindik lehengo erara lanean ari den errementari bat Oñatiko Olabarrieta auzoan.

Aspaldiko argazki batzuk baditugu, baina irudi gutxi. Baina badira garai bateko lanbideetan aritu edo haiek gogoratzen dituzten pertsonak; horiek dira lekuko onenak.

Informazioa lortzeko jendeari galdezka aritu gara. Ez gara liburu baten oinarritu. Lanbide horietan aritu eta oraindik bizirik daudenak elkarrizketatu ditugu; hori da lan honen balioa.

MARIA AGIRRE
'Berria' /04-01-20

HERRITARRENBERBAK/ Lore Abarik



Eta zuk, badakizu nor den B.E.?

Joan zen egunean telebistako txutxumutxuei buruz hitz egiten, era ezberdinetako iritziak agertu zitzaizkigun: batzuk, nahi eta nahi ez, eta programa horiek ikustea nahi ez arren, zapping askotan egiten denez, txutxumutxu horien berri jakiten duzula esaten zuten, gaur egun telebistako kate guztietan antzerakoa ematen zutela eta ia derrihortuta zeundela txutxumutxuak ikustera, baina nik ados ez nengoela esan nien.

Nik adierazten nuen, ezetz, ez baduzula nahi, ez dituzula horrelakoak ikusten, ikusten bagenituela, gustukoak genituelako, denbora pasa edo benetan ikustea nahi genuelako zela.

Eta hitz egiten geundela, apustu bat egitea erabaki genuen: gure famili, lagun edo ezagunen artean, komunikabideetan askotan agertu izan den pertsonaia famatu bat aukeratu eta ezagutzen ez zuen norbait bilatu behar genuen.

Aukeratutako pertsonaia, Belen Esteban izan zen. Egia esan, ziur nongoen lagun konkretu batek nor zen jakingo ez zuela, baina galdetu genonean, ia curriculum osoa kontatu zigun. Nire esperantza guztiak pikutara...

Baina behin eta beste askori galdetu ondoren, eta apustu honen gorabeherak kontatzen ari ginenean, "ba nik ez dakit nor den!" esan zigun lagun batek, eta egia esan, ezin genuen sinistu. Benetan ez dakizula nor den B.E.? Eta ez, ez zekien!! Hori

ilusioa egin zidana!
Ez dakit honekin ondorio serioerik atera daitekeen, baina apustua entrenigarria izan zen eta galdetu genuen lagun artean, guztiok edo oso *kotilak* gara edo eta ateratako batz bestekoa ikusita, telebistak *txorrada* pila bat ematen dituela baina, gure esku dagoela esfortzu handi bat eginez, ez kutsatzea.
Eta zuk, badakizu nor den B.E.?

"Komunikabideetan askotan agertu den pertsonaia famatu bat ezagutu behar genuen, eta Belen Esteban izan zen"

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Oihana Elorza

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriluzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Andran kontuek

ARETXAGAZETAKo lankidiek hasarre egin dustie ezer ez dotelako esan, eta ahaztu baiño len aldizkari honetako kazetarixe izen dan Amagoia Lasagabaster agurtu gureko nauke. Arrasatera fan jaku bera, antza telebisiñuen lan egittie gurau dauela eta GOITBra bieldu daue. Hala eta be, han eta hemen ikusiko dogu, eta sarri etorriko da herriko barririek jasoten.

Herriko beste kazetari bat be aittetu gureko nauke, Maria Agirre, hain zuzen. Saio barririek hasi euen GOITBn martitzenien: *Iragana gogoratzuz*. Aspaldiko kontuek ekarri zuzkun gogora karobiak, elur zuloak eta beste horrenbeste.

Beste izen batzuk be ekarriko dittut gogora. Izen be, Aretxarte dendarixen elkartiek herriko bezero onenak sarritu zittuen: Rosario Garzia-etxabe, Edurne Isasmendi eta Agustina Guisado. Guztixek emakumiek. Eta emakume kontuekin jarraitute Muru-Alde elkartien emakume batek sartu gure dauela entzun dot, baiñe ez dakit sozio danak konforme dazen. Estatutuek aldatu baeuian oin urtebete emakumiek sar daittezen izengo zan ba? Ikusi egin biher ze pasetan dan...

Bukaketako Santa Ageda mutillek ondo ikasi daixiela dantzan...

M. J. Aretxaga

URKULU/ Ekologistak Martxan taldeko Jabier Abalde etorriko da Urkuluko 'habitat alternatiboa'-ren gainean berba egitera

Lurralde Zatiko Planaren gaineko hitzaldia antolatu du Urkulu Zain Dezagun ekimenak

MIRARI ALTUBE

Urkulu Zain Dezagun herri ekimenak hitzaldia antolatu du urtarrilaren 28rako. Lurralde Zatiko Planaren berri eman, eta Urkulu ingururako zehaztu duten *habitat alternatiboa* izango dute hizpide. Eguaztenean izango da, 19:00etan, udaletxeko ganbaran.

Debagoienerako aurreikusitako Lurralde Zatiko Planak kezka handia sortu du herritarrengan. Planak dioena jakiteko eta herritarren parte-hartzea bultzatzeko, hitzaldia antolatu du Urkulu Zain Dezagun ekimenak.

'HABITAT ALTERNATIBOA'-REN AURKA

Orain urtebete aurkeztu zuten Lurralde Zatiko Plana udaletan. Datozen urteotan gure ibarrean gertatuko diren aldaketa guztiak jaso dituzte plan horretan, eta aurreikusitako aldaketa batzuek kezka sortu zuten ibarreko udaletan. Hori horrela, alegazioak aurkeztu zituzten ibarreko udalek bere garaian, baina oraindik ez dute erantzunik jaso.

Planean Urkuluko *habitat alternatiboa* delako proiektua jaso dute. Bedoña auzoan hasi eta Eskoriatzako Eraña auzora arte-



Abenduaren 20an protesta ibilaldia egin zuten, Urkulura, eta Jabier Abalde *habitat alternatiboa*-ren gainean egin zien berba.

an 1.000 etxebizitza egitea jasotzen da, baita ur parkea ere. Horrek kezka handia sortu du herritarrengan, eta hainbat ekimen egin dituzte azken hilabeteotan horren aurka: batetik, mozioak onartu

dituzte Aretxabaletako eta Eskoriatzako udaletan; eta, bestetik, protesta ibilaldia egin zuten abenduan.

Informazio falta handia dagoela ikusita, Urkulu Zain Dezagun

herri ekimenak hitzaldia egingo du eguaztenean, urtarrilak 28, 19:00etan, udaletxeko ganbaran. Ekologistak Martxan taldeko Jabier Abalde emango ditu azalpenak beste batzuekin batera.



Herriko ume guztiek astindu zituzten danborrak

Sukaldarien kapela buruan, danborrak gerrian eta makilak eskuan, burrunba galanta atera zuten herriko umeek eta gaztetxoek martitzenean. Pausoka Haur Eskolakoek eta Kurtzebarri Eskolakoek goizean egin zituzten danborradak, eta Santa Rita ikastetxeko umeek arratsalde partean. Egun berezia izan zuten guztiek Sebastian deunaren kontura. /M.A.

Lubia
oinetakoak

beherapenak!

Mitarte 14 • 943 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • 943-79 66 53 ARRASATE

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79



ARTXIBOA

Arrakasta handiko lehiaketa da Loramendi Literatura Lehiaketa; iaz, alkateak eta kultura zinegotziak banatu zizkieten sariak.

LEHIAKETA/ Lehen Hezkuntzako eta DBHko ia 320 gaztetxok hartu dute parte aurtan

XV. Loramendi Literatura Lehiaketako sariak banatu zituzten atzo, eguena

M.A.

Atzo banatu zituzten XV. Loramendi Literatura Lehiaketako sariak. Ia 320 ikaslek hartu dute parte aurtan; gehienak, gainera, aretxabaletarrak izan dira, baina herriko ikastetxeetan ikasten dabiltzan inguruko herrietakoak ere badaude.

Urteroko sari banaketa egin zuen Loramendi Euskara Elkarteak atzo, eta udaletxe zaharra gaztetxoz bete zen. Sei atal izan ditu aurtengo lehiaketak, eta mailaren arabera eman dituzte sariak.

EUSKALKIAN IDATZITAKO LAN BAT

Urtetik urtera ikasle gehiagok hartzen du parte Loramendi EEK antolatzen duen literatura lehiaketan; iaz, 314 izan ziren, eta aurtan, 317. Iaz, gainera, atal berriak sartu zituzten lehiaketan: piro-poak, komikiak, eta amodiozko gutunak; izugarritzko arrakasta izan dute guztiek ere.

Aurkeztutako lanek izan duten mailari dagokionez, denetik egon dela esan digu Larraitx Arando Loramendi EEko dinamizatzaile-

ak: "Oso ondo idatzitako lan batzuk jaso ditugu; gutxi, egia esan. Beste batzuek maila ona zeukaten. Eta erdipurdikoak asko izan dira". Euskara batuan idatzi dute guztiek, batek izan ezik; Aretxabaletako euskaran idaztea hautatu du hark. "Euskalkian idatzitako lan bat jaso dugu, oso ondo idatzita, gainera, eta hori pozgarria da", dio Larraitzek.

SARI BANAKETA

Piropo lehiaketan DBHko 1. zikloko Alazne Martin, Jon Barrenexea eta Tamara Tena saritu zituzten, eta DBHko 2. zikloko Jabi Morales, Jessica Amozarrain eta Maite Fraile.

Komiki lehiaketan DBHko 1. zikloko Markel Uriartek, Jon Guruzeagak eta Unai Agirreme-

tak jaso zituzten sariak; eta DBHko 2. zikloko Miren Murgiondok eta Ainhoa Carrascok.

Poesiaren atalean, DBHko Lide Pagaldai, Lorea Church, Eñautz Zubizarreta eta Garikoitz Igartua saritu zituzten. Amodiozko gutunen atalean, bestalde, DBHko 1. zikloko Maddi Bengoetxeak, Hidelgard Colinok eta Jon Delgadok jaso zituzten sariak, eta DHko 2. zikloko Lide Marek, Maddalen Akizuk eta Garazi Azkoitiak.

Arrakasta handien ipuinen atalak izan du, urtero moduan; 160 lan inguru jaso dituzte. Hona sarituak: Lehen Hezkuntzako Adrian Aginagalde, Xabier Zubillaga eta Xabier Antxia; eta DBHko Lide Arenaza, Ainhoa Elortza eta Leire Pascual.

Seigarren atala grabaketa lanei dagokio. Garazi Orobengok, Maier Errastik eta Markel Guisadok jaso zituzten sariak, eta azken horrek elkarrizketa egindako Zumelaga-ri ere eman zioten sari berezia.

Pozik jaso zituzten gaztetxo guztiek sariak, eta datorren urtean ere parte hartuko dutela esanaz egin zuten alde.

"Euskalkian idatzitako lan bat jaso dugu, oso ondo idatzita, gainera, eta hori pozgarria da"

EHNaren gaineko balorazioa egin du Bai Euskal Herriarrik

M.A.

EHNaren eguna egin zuten Bai Euskal Herriari taldeek abenduan, eta Aretxabaletan 340 lagunek tramitatu zuten agiria orduan. Orain, EHNA erabiltzeko bidea zabaldu gura dute herriarrik, eta Udalari eskaera egin diote: udaleko tramitazio lanetan onar dezala, hain zuzen.

Azaroan sortu zuten Aretxabaletan Bai Euskal Herriari taldea. EHNA tramitatu zuten orduan, eta orain, orduko datuen inguruko balorazioa egin dute.

340 HERRITARREK DUTE EHNA

Bi helburu zituen Aretxabaletako Bai Euskal Herriari taldeak sortu zenean: lehenengoa EHNA tramitatzeko zen, eta abenduaren 14an eta 19an egin zuten. Orduko datuak eman dituzte orain: 0 eta 13 urte bitarteko 18 herritarrek egin zuten, 15 eta 18 urte

bitarteko 11k, 19 eta 35 urte bitarteko 166k, 36 eta 65 urte arteko 130ek, eta 66 urtetik aurrera daukaten 17k. Hortaz, EHNA egin zuten ia erdiak 19 eta 35 urte arteko gazteak izan ziren.

EHNA HERRIAN ERABILTZEAK

Lehenengo helburua beteta, bigarrenari heldu diote orain. EHNA herrian erabili ahal izateko bideak zabaltzea, hain zuzen. Eta lehenengo asmoa da Udalean egin diren tramitazio lanak EHNA erabilia egitea. Horretarako eskaera egin diote Udalari, eta erantzunaren zain daude. EHNA tramitatzeko jarraitu gurako luke, gainera, eta horretarako toki egokia eskuratu gura dute.

Abenduan tramitatu zituzten EHNA agiriak hilabete barru jasoko dituzte herritarrek etxetan. Bai Euskal Herriari taldeak erabiltzera konprometitu daitezene gura du, "herri honen etorkizuna guztion esku dago-eta".



Euskal Herriko historiaren berri jakin guran

Euskal Herriko historiaren gaineko hitzaldi zikloa egiten dabil Kurtzebarri eskolan. Lehenengoa azaroan egin zuten, eta atzo, eguena, bigarrena izan zuten. Nabarralde elkartearen presidentea, Tomas Urzainki, etorri zen 1200. urtearen gainean berba egitera. Herritar asko hurreratu dira orain arte antolatutako hitzaldi bietara; hortaz, jakingura duten seinale. / M.A.

LEIBAR

arrandegia

Loramendi 1
Tel.: 943 79 18 33

Mitarte kalea 1
Tel.: 943 77 13 79

Aretxabaleta



Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jauregi Okindegia

Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

PIENSO
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

FUTBOLA

Ez da inor aurkeztu UDA elkarteko presidentetzarako eta batzorderako

Martxoan beste batzar bat egingo dute, eta batzordekideek ordezkioak eroango dituzte

M.A.


Joan zen egubakoitzean egin zuen batzarra UDA kirol elkarteak. 20 lagun elkartu ziren batzarrean, uste baino gehiago, baina ez zen inor presidentetzarako aurkeztu, ezta batzordeko kide izateko ere. Hurrengo batzarra martxoan egingo dute.

Kultura etxeko bideo gelan elkar-tu ziren UDA kirol elkarteko bazkide eta jarraitzaileak; 20 guztira. Rafa Etxeandiak eman zien egogarraren berri, egoera larria izan ere.

PRESIDENTERIK EZ

UDA elkarteko batzordeak urte asko daroa lanean: Bixente Etxeandia presidentek 10, eta gainerako batzordekideek gehiago. Hori horrela, guztiz nekatuta aurkitzen direla eta berri beharra dagoela esan zien Rafa batzordeko kideak; ez berri bakarrik, baita osatu ere, lau dira-eta orain lanean jarduten dutenak. "Oso garrantzitsua da presidentea topatzea", dio Rafa Etxeandiak. "Presidentearekin batera hamar lagunek osatutako lantaldea izango litzateke egokiena, lan asko pila-tzen zaigu-eta".

Mantentze lanak egiteko langile bat daukate, eta UDAko futbol taldeak -9 talde- zuzentzeko ardura gurasoen eskuetan utzita daukate. Hala ere, lan asko pila-tzen zaie astero-astero futbol zelai inguruan batzordeko kideei.



UDAko batzordea osatu eta presidente berria gura dute, baina ez da inor aurkeztu.

UDALAREN LAGUNTZA

Mikel Uribechebarria kirol zinegotzia batzarrean izan zen. UDAk eta Udalak hitzarmena egingo dute martxoan; helburua da futbol zelaiko mantentze lanendako dirulaguntza ematea. Udalak ematen dion diruaz gain, zozketa txartelak saldua lortzen du UDAk dirua.

Martxoan beste batzar bat egitekotan geratu ziren. Ordurako batzordeko kide bakoitza ordeko bat topatzen saiatuko da; presidentea topatzea, ostera, zailagoa izango da. Ekainean egingo dute batzar orokorra, eta ordurako ordezkorik ez bada azaltzen, utzi egingo dutela iragarri zuen Rafa Etxeandiak.

PILOTA

Bat irabazita eta beste bat galduta hasi dute Udaberri Txapelketa herriko pilotariak

Joan zen zapatuan jokatu zituzten Udaberri Pilota Txapelketako lehenengo partiduak. Iturrigorri frontoian izan zituzten, eta erdipurdiko emaitzak lortu zituzten. Sergio eta Odei pilotariak, hirugarren mailako seniorrek, 22-10 irabazi zioten Donostiako Alde Zaharreko bikoteari. Lehenengo mailako seniorrek, hau da, Errasti anaiek, ostera, galdu egin zuten Goierriko bikotearen aurka; 6-22. Oso gaizki jokatu zuen bikote aretxabaletarrak.

Hirugarren mailako seniorren artean, beste bikote batek ere jokatuko du txapelketa, Arroiabek eta Kortabarriak osatutakoak, hain zuzen. Gaur izango dute partidua Iturrigorri frontoian, 21:00etan, errenteriarren aurka. Sergiok eta Odeik, bestalde, Intxaurren jokatuko dute bihar bigarren partidua; Errasti anaiek, Azpeitian.

KARATEA

Ibarreko karatekek Aretxabaletan egingo dute entrenamendu saioa gaur, egubakoitza

Karatea ezagutzera emateko eta karate jokalaria elkartuta sentitzeko helburuarekin, hileko azken egubakoitzetan ibarreko karateka guztiak elkar-tu egiten dira. Azaroan Arrasaten egin zuten entrenamendu saioa, eta gaur, egubakoitza (nahiz eta ez izan hileko azken egubakoitza), Aretxabaletan egingo dute. 19:45ean hasi eta 21:00ak bitartean izango dute saio hori kirol etxean, eta ibarreko 30 ume eta gaztetxotik gora elkartuko dira. Datorren hilean, ostera, Bergaran egingo dituzte entrenamenduak.

PARTIDUAK

FUTBOLA

Beti Gazte-UDA
Preferentea.
Lesaka.
UDA/Almen-Bergara
Ohorezko gazteak.
Zapatua. 16:30. Ibarra.

PILOTA

Aretxab. -Errenteria
Hirugarren mailako seniorrak.
Egubakoitza. 21:00. Iturrigorri.

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 0 Real Union 0
Preferentea.
Eibar 2 UDA 2
Ohorezko gazteak.
UDA 2 Eibartarra 3
Lehenengo mailako gazteak.
Sto. T. Lizeoa 0 Almen/UDA 1
Lehenengo mailako kadeteak.
Zarautz 2 UDA 1
Ohorezko infantilak.
Almen/UDA 3 Eibar 1
Lehenengo mailako infantilak.

Almen/UDA 2 Elgoibar 1
Emakumeen liga.
Bergara 2 Almen/UDA 1
F-8 emakumeen liga.
Elgoibar 5 UDA 3
Alebinak.


PILOTA

Udaberri Pilota Txapelketa
Aretxab. 22-Alde Zaharra 10
Hirugarren mailako seniorrak.
Aretxab. 6-Goierri 22
Lehen mailako seniorrak.

PAGALDAI

*Opari denda
Burrindegia*

Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14



ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

J.J. IRURE
TURKINTZA

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15
ARETXABALETA

943 793 187

JAUSORO OSTATUA

Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETA

Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61

Lasai

**Mirian Manteca
masajista**

Lezama Zentru Komertziala
Santa Kurtz 24, etxabea ARETXABALETA
Tel.: 943 77 04 34

- Masaje terapeutikoa
- Posturen azterketan eta egokiratzean diplomaduna
- Osteopatia:
- Kraneala
- Estrukturnala
- Funtzionala
- Lotura muskularrak



Miren & Zuriñe

Bitxitegia • Erloju denda
Bitxien diseinua
Bitxien konponketa

Otalora 4 (eliza aurrekaldean)
Tel.: 943 77 13 57
ARETXABALETA

Jon Díaz

Harakina


Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

**Maritxu
drogeria
mertzeria**

Araba Ibilbidea 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETA

ERRETRATUZAHARRA

Horrelakoa zen Aretxabaleta duela 90 urte



1. de arteak: elctricitate; calderas, calientadores de agua. Maquina de bastante importancia en Aretxabaleta.



VISTA GENERAL DE ARETXABALETA




Escuelas públicas, y grupo de escolares, con sus maestras Francisca Arizmendi y D. Santiago Ostiz.

Herriko eskola, bainuetxea, udaletxe zaharra, Otolora jauregia, Beruako langile bat eta herriko abadeak, alkatea eta mikeleteak. Horiek guztiak jasotzen dituzte 1915. urteko argazki zahar hauek. Eta, argazkiekin batera, azalpen txiki bat eta herriaren inguruko datu batzuk ere badatoz.

Esaterako, 1.724 biztanle zituen orduan Aretxabaletak, eta herria izan arren, tratu pribilegiatua zuen, Gipuzkoako hiribilduek (villak) jasotzen zuten tratua bera, hain zuzen. Garai hartan, gainera, liskar handia izan zuen Eskoriatzarekin. Norbaitek ordezkatu behar zuen Leintz bailara Batzar Orokorretan, eta ez ziren ados jartzen. Azkenean, urte baten herri batek eta hurrengoan besteak ordezkatu zutela erabaki zuten, Aretxabaleta hasita. Andra Mariaren parrokiaz gain, beste hiru ermita eta zortzi eliza zeuden, bakoitza zegokion parrokoaren ardurapean. Eta herriko abizen nagusien artean, Errasti, Garai eta Uribe daudela ere badio.

Album-Grafico-Descriptivo del Pais



D. Tomás Iturriz Zabekia, condutor. — E. D. Félix Zabekia Oteiza, párroco. — J. D. Andrés Leibar Oteiza, capellán del convento de monjes.

La antigüedad de este lugar es remotísima: fué ya comprendido en la donación que del valle de Leintz hizo Enrique II á Beltrán de Guebara en 1374. Excortada y Aretxabaleta pleitearon largo tiempo sobre cuál de las dos poblaciones debía representar al referido valle en las Juntas Generales, resolviéndose que tal facultad correspondía alternativamente á una y otra, comenzando por Aretxabaleta. La antigua parroquia del lugar, considerada como la más antigua del valle, fué la llamada de San Miguel de Beco-steta convertida hoy en cementerio. La iglesia actual es de la advocación de




1. D. Gregorio Asteasu, alcalde. — 2. D. Romualdo Lenoir-Carrizosa, primer teniente alcalde. 3. D. Antonio Uribealain, segundo teniente alcalde. 4. D. Juan María Gaitanero. 5. D. Juan P. Elizalde. 6. D. Ramón Aramendi, concejales. 7. D. Ignacio Urrutia, secretario. 8. D. Eusebio Pagan, alguacil.

Santa María de la Asunción, y además existen en el término de Aretxabaleta, tres ermitas y ocho antiguas casas solares del lugar, con los apellidos Aleiza, Arcatazo, Ardanza, Arenaza, Arizmendi, Arriola, Artalain, Basabe, Celaya, Ciguero, Echibart, Errasti, Galarraga, Garay, Góiti, Gorríaeta, Iturriz, Izurieta, Landaola, Levi, Mendibelza, Mendizabala, Mitate, Mendizabala - Urrutia, Ocho - Iturriz, Oñolola, Sardano, Ullibarr, Urbieta, Urtiaga, Urtiaga, Zubia, Zubia, Zubia, Zubia, Zubia, Zubia.



1. D. Severiano Olaso Gallandore, médico. — 2. Pedro Altamirano, jefe del puerto de nieves. — 3. D. Mateo Anjo Arriola, farmacéutico.



Vascongado. Tomo de Guipuzcoa. Años 1914-1915 liburuak jasotzen ditu datu horiek guztiak. Liburu handia da eta Gipuzkoako armarrria eta Gernikako Arbolaren kantua ditu azalean, bi margorekin batera. Gipuzkoako herri guztietako argazkiak dakartza. Baita garai hartan

udaletxean zeudenen izenak eta herriari buruzko zenbait datu ere. Horrez gain, Gipuzkoako gai zehatz batzuen inguruan hainbat kolaboratzailek idatzitako testuak ere jasotzen ditu. Esaterako, armarrriaren historia, mikeleteen presentzia, lantegiak eta industriak, abeltzaintza, sagardoak

izan duen garrantzia, aureskua eta baita Gipuzkoako jauntxoaren zerrenda bat ere. Liburuaren bukaeran hainbat enpresaren iragarkiak datoz, tartean, Aretxabaletako Berua lantegiarena.

Argazkia eta informazioa: Miren Urreta

NOLAALDATUDIRENGAUZAK


Lehengo bainuetxe dotoreak

Gaur egun ez dago bainuetxerik Aretxabaletan, baina garai baten bazeuden, eta ospe handia zuten gainera. Jose Maria Urkia mediku donostiarrak Gipuzkoako iturri eta ur sendagarrien gaineko tesia egin, eta liburuxka bat atera zuen. Ideia gustatu, eta Aitor Antxia lehengo alkateak herriko bainuetxeen gaineko liburua kaleratu zuen.



≈ 1915

Herriko txokorik ederrena zelako-edo, herritar askok bainuetxearen aurrean ateratzen zituzten argazkiak.



2004

Lehen, leku dotore eta lasaia zen, baina gaur egun sartu-irten handia dago. Lasaitasunarekin lotura txikia du industrialdeak.



Lokal berria. Sarbide erraza. Parking-a gertu.

ARRASATEKO NOTARIOTZA BERRIA!

Zerrajera 2 behea

Tel.: 943 79 13 58 / 943 79 63 35

Faxa: 943 79 01 73

notmon21@euskalnet.net

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko urtarrilaren 23a / 153. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Udalak euskara ikasi gura dutenendako dirulaguntzak emango ditu aurten ere

AINTZANE GARDOKI

Urte mordoak badira Eskoriatzako Udala euskara ikasi gura duten eskoriatzarrei dirulaguntzak ematen hasi zela. Udako Euskal Unibertsitatean parte hartzeko laguntzak eta euskara hutsezko errotuluak jartzeko laguntzak ere ematen ditu Eskoriatzako Udalak.

Eskoriatzako euskaltegitik kanpo gelditu diren herritarrek edo herritik kanpo bizi eta euskara ikasi gura duten eskoriatzarrek eska ditzakete dirulaguntzak. "Leintz euskaltegian izena eman eta talde egokirik ez duenak eskatu ahal ditu laguntzak. Barnetegira joaten den edonork ere eska dezake. Eta edozein arrazoiengatik hemendik kanpo bizi eta kanpoan euskara ikasten ari den eskoriatzarrek ere eska dezake laguntza", esan digu euskara teknikari Mari Carmen Arrietak.

Dirulaguntzak eskuratzeko irizpideak urtarrilaren 15eko batzordean onartu zituen Udalak. Dirulaguntzak ikastaroak egin eta gero eskatuko dituzte interesatuek. Hainbat baldintza bete beharko dituzte horretarako.



OHIANA ELORZA

lax, lau eskoriatzarrek eskatu zuten euskara ikasteko dirulaguntza, eta bakarrik Udako Euskal Unibertsitateara joateko.

ko. "Eskola-asistentzia %90ekoa izatea, matrikularen ordainketa agiria aurkeztea eta Eskoriatzan erroldatua egotea", esan digu Arrietak. Udaletxean urte osoan

egin ahal izango da dirulaguntzak eskuratzeko eskaera.


Horren harira, Udako Euskal Unibertsitatean parte hartu gura dutenei ere ematen dizkie diru-

laguntzak Udalak. Eta herriko taberna, denda eta enpresetan euskara hutsezko errotuluak jartzeagatik ere ematen ditu dirulaguntzak Eskoriatzako Udalak.

Urte mordoak badira euskara ikasi gura dutenei Udala laguntzen hasi zela

Barnetegira joaten den edonork ere eska dezake dirulaguntza

Dirulaguntzak jasotzeko hainbat baldintza bete beharko dituzte interesatuek



Gero eta herritar gehiagok ematen dute odola

Urtarrilaren 15ean eta 22an, herritar ugari erantzun zioten Arabako Odol Bankuak egindako deialdiari. "Gero eta herritar gehiagok ematen du odola, baina, egia esan, dagoen premia gero eta handiagoa da. Hori da zailena, daukagun premiari erantzun egokia jakiten ematea", esan digu Arabako Odol Bankuko ardura-dunak. Eskoriatzarrek odola emateko beste aukera bat izango dute datorren martxoaren 24an. HUHEZIKO fakultatean egun osoz eman ahal izango dute herritarrek odola.

LABUR

Kirol Elkarteko kirolariak, ondo baino hobeto

Areto futboleko ohorezko ligan diharduen taldeak ez zuen Arabatik garaipenik ekarri joan den astean. Hala ere, lidertza-ri gogor eusten dio. Eskoriatza KEko areto futboleko bigarren taldeak, berriaz, 7-0 irabazi zion Bayer taldeari. Azkeneko bi partiduetan 16 gol sartu du taldeak, eta bakar bat ere ez du jaso.

Saskibaloian diharduten neskak ere gogor ari dira lanean: senior mailako taldea sailkapeneko bigarren postuan dago. Gazteak eta kadeteak ere sendo ari dira.

ORAINDIK EZ DAGO BESTE HOTELIK HERRIAN

Hasi dira Torrebaso industrialdean eraikiko duten hotela egiten

OIHANA ELORZA

Hasi dira dagoeneko Torrebaso industrialdean eraikiko duten hotela egiten. Datorren urteko udan bukatuko dituzte lanak, gutxi gorabehera. Hotelaz gain, ordea, enpresa askok industrialde horretan izango dute egoitza. Pasealekua martxorako egokituko dute.


Aste honetan hasi dituzte Torrebaso industrialde berrian egingo duten hotela eraikitze obrak. Lanak ondo joanez gero, datorren urteko udan irekiko dute. Hala ere, industrialdea bera aurreten zabalduko dute. Guztira 50 bat enpresa izango dira han, eta jate-txea egiteko tokia ere egongo da.

AURRERAPEN HANDIKO HOTELA

Eraikiko duten hotelak 98 gela izango ditu, eta industrialde berriak ekarriko dituen enpre-setako langile eta bezeroei zerbitzua eman nahi die, besteak beste.

Oso hotel moderno eta eroso izango da. Puntako teknologia zerbitzuak izango ditu. Adibidez, munduko edozein tokitatik jarrai daitezkeen bideo konferentziak emateko gela bat ere izango du. Izan ere, logeaz gain, bilerak, bazkariak eta bestelako hitzordu eta betebeharrak egiteko egongo da prestatura hotel berria.

Hotela bera datorren urteko udan zabalduko espero dute, baina Torrebaso pasealekua guztiz egokituta egongo da datorren urteko martxorako. Ordurako azpiegitura guztiak amaituta egongo direla azaldu digu Clemente Belokik, industrialdeko arduradun nagusiak. Pasealekua bera eginda, argiak jarrita eta bestelako azpiegiturak bukatuta. Hotelaz gain, ordea, beste



AINZANE GARDOKI

Hotelaz gain, enpresa askok industrialdean izango dute egoitza.

Torrebaso izeneko pasealekua bera datorren martxorako egokituko dute

Punta-puntako teknologia zerbitzuak izango ditu hotel berriak

Enpresa asko erakarri eta lanpostu ugari sortuko ditu industrialdeak

hainbat zerbitzu ere eskainiko ditu Torrebaso industrialdeak.

50 ENPRESA INGURU

Kanpoko enpresak erakarri eta aldi berean lanpostu berriak sortu nahi dituzte, eta, horretarako, aukera asko emango dituen industrialdea egin nahi dute.

Enpresa askok industrialde berrian izango dute egoitza nagusiak.

sia. Guztira 50 bat enpresa egongo dira. Horieta batzuek erosi dute jada lokala eta beste batzuek eskaera egin dute. Enpresak era guztietakoak izango dira.

Guztira 36.800 metro koadro izango ditu industrialdeak. Hiru motatako eraikinak izango dira bertan: industria jarduerak dutenak soilik, jardueraz gain bulegoak ere badituztenak eta bule-

goak soilik izango direnak. 1999ko martxoan hasi zituzten lanak Eskoriatza sarreran dagoen industrialdean eta hainbat fase-tan egingo dituzte. Egiten hasi diren proiektu guztiak bukatu arren, beste lursail bat gelditzen da. Eraiki daitezkeen lursaila da, baina etorkizunak ekarriko dituen beharrei begira utziko dute. Oraingoz, ez dute ezer eraikiko han.

TELEFONOK JAKINGARRIAK

- ESKORIATZA**
- Udaletxea 943 71 44 07
 - Udal bulegoak 943 71 45 32
 - Udaltzaingoa 943 71 44 07
 - Euskaltegia 943 79 21 68
 - Kultura etxea 943 71 46 88
 - Gizarte laguntzailea 943 71 31 36
 - Kirol etxea 943 71 53 28
 - Liburutegia 943 71 31 35
 - Luis Ezeiza 943 71 53 56
 - Arizmendi Ikastola-Jose Arana 943 77 20 25
 - Arizmendi Ikastola-Almen 943 77 20 25
 - Museo Eskola 943 71 54 53
 - Axtroki 943 71 54 34
 - HUHEZI 943 71 41 57
 - Osakidetza 943 71 44 52
 - Telesko 943 71 49 17
 - Taxiak 943 71 40 59

- BESTELAKOAK**
- Eskualde ospitalea (Arrasate) 943 00 53 00
 - Gurutze Gorria (Bergara) 943 76 55 76
 - Ertzaintza (Arrasate) 943 79 71 99
 - Suhiltzaileak (Oñati) 943 79 28 00
 - Renfe (Zumarraga) 943 72 15 15
 - Renfe (Gasteiz) 945 23 20 30
 - PESA (Arrasate) 902 10 12 10
 - Larrialdiak (Arrasate) 943 77 10 43
 - SOS Deiak 112

OHARRAK

EUSKALTEGIKO ZOKKETA

Udal Euskaltegiek egindako zokketan 19.982 zenbakia izan zen saritua. Zenbaki saritua Lasarte-Oriako euskaltegian banatu zuten. Lidia Gonzalez izan zen irabazlea. Nekazal etxe baten asteburu ederra pasatzeko aukera izango du irabazleak.

MANKOMUNITATEAREN OHARRA

Otsailaren lehengo astetik aurrera, traste handien bilketa astero-astero egingo dute Mankomunitateko langileek. Eskoriatzan eguenero atera ahal izango dira trasteak ohiko lekuetara, 20:00etatik 22:00etara. Dena dela, trasteak atera gura duenak horren berri eman beharko du 943 71 19 38 zenbakian.


ANTZERKIA

Datorren urtarrilaren 30ean Madrileko *Griot* taldeak ipuin kontaketa eskainiko du. Kultura sailak antolatutako ekitaldia HUHEZI fakultatean egingo da 22:00etan.

AXTROKIREN AGENDA

'ASTELEHENEN GOIENKARIA'

Otsailean kaleratzen hasiko den *Asteleheneko Goiienkaria*-ren harpidedun izan gura duenak 902 36 38 51 edo 943 79 21 00 zenbakira deitu beharko du. *Asteleheneko Goiienkarian* harpidedun egiten diren Axtrokiko bazkideek 5 euroko beharpena izango dute urteko kuotan. 25 euro beharrez 20 ordaindu beharko dituzte.



Danbor hotsa lau haizetara

Luis Ezeiza ikastetxeko 161 umek gogotik astindu zituzten danborrak. Haur Hezkuntzako sukaldariz jantzita atera ziren. Lehen Hezkuntzakoak, berriz, hiru konpainia osatu zituzten. Eguraldiak lagundu ez arren guraso asko hurbildu ziren seme-alabek danborra nola jotzen zuten ikustera. San Sebastian martxa. Diana eta Iriyarena jo zituzten umeek. Eskoriatzako Musika Bandako kideek, aldiz, Donostiako danborradan hartu zuten parte.

MUSEOAREN INGURUAN LANERAKO PREST DAUDEN HERRITARRAK BATU GURA DITUZTE

Gatzagarrek Gatz Museoa ikus zezaten, ate irekiak antolatu zituzten arduradunek

AINTZANE GARDOKI

Gatz Museoa eskura izan arren, gatzagar asko egon barik zeuden joan den zapatu arte, hilak 17. Eguraldiak lagundu ez zuen arren, herritar ugari batu ziren gatzaren gainekoak jakiteko. Ondoren, bilera egin zuten herritarrek museo arduradunekin.

Gatz Museoko arduradun Aitziber Gorosabel pozik dago joan den zapatuan herritarrek emandako erantzunarekin. "15 lagun inguru elkartu ginen. 15 nagusi eta haien seme-alabak, hobeto esanda. Agian norbaitek pentsatuko du ez direla asko, baina ni pozik nago. Beharbada herriko neska gazteen taldea igarri dut faltan", esan digu Aitziberrek.

Gatzagak bertako bisitari askok eta askok ez zituzten museoaren barrukoak ezagutzen. "Ordubeteko bisita gidatua egin genuen. Jendea pozik ikusten zen. Gero, museoaren nondik norakoak hurbilgotik ezagutze-

ko bilera egin genuen", argitu digu Aitziberrek.

ETORKIZUNA FINKATU GURAN

Joan den abenduaren 26an museoarekin lotutako bilera egin zuten Gatzagan. Gaia; *Gatz museoaren oraina eta geroa, gure ondarea babesteko ekimena*. "Erantzun hobeia izan zezan, deialdia ez zen publikoa izan. Izen eta abizenak jarri genituen gutun-azaletan, herritarrek bilerara etorriko zirela ziurtatu guran. Herriko elkarre eta talde guztietara eta familia gehienetara heltzen saiatu ginen. Erantzun dezente ona izan zuen deialdiak. Joan zen zapatuan egingakoa lehenengo bilera haren

"Guztion ondarea da museo, eta guztion artean ondare hori aberastea dugu helburu"

jarraipena izatea gura genuen", esan du Gorosabelek.

Udalaren erabateko babes eta Labidea kudeatzen duten langileen ekarpenak ditu museoak. "Baina ez da nahikoa. Joxerra Agirreurretak aspalditik dio Udalak eta Labideako arduradunok talde osatuago baten beharra dugula aurrera ondo egiteko. Zapatuan Joxerrak bildutakoei esan zien moduan, hamar buruk gehiago pentsatzen dute bik bakarrik baino. Azken finean, herritarrek egin ditzaketen ekarpenak jaso gura ditugu", dio Aitziberrek.

Ikerketa arloa bultzatzea, lan ildo berriak finkatzea eta etorkizunerako hausnarketan sakontzea ditu helburu talde berriak. "Denok ez dugu kapazitate bera; batzuek lan fisikorako gehiago balioko dute eta beste batzuek lan intelektualerako. Gatzagarrek ez ditugu lanez gainezka jarri gura, baina museo guztion ondarea da, eta guztion artean ondare hori aberastea dugu helburu", amaitu du Aitziberrek. Datozen asteotan beste bilera bat egingo dute.



Gero eta bisitari gehiago hurbiltzen dira Gatzagara Gatz Museoa ikustera.

ARTXIBOA



San Sebastiani gorazarre egin zioten umeek


Pasa den martitzenean gogor astindu zituzten danborrak Gatzagako umeek. Azkeneko egunetan entsegu lanak egin eta gero, San Sebastian egunean, eguerdian, herritarrei ikuskizun polita eskaini zieten.

Ikasle bakoitzak egindako sukaldari txapel dotoreekin eta amantal eta guzti, San Sebastian martxa eta Diana jo zituzten. Eskolan hasi berri den Jon Egidazu ere pozik ibili zen danborra astintzen. Arratsaldean, berriz, Eskoriatzako lagunekin danborradan parte hartu zuten.

LABUR

Arbe enpresa hasi da herriko mantentze lanetan

Aretxabaletako Arbe enpresa hasi da astean herriko mantentze lanak egiten. Joan den uztaila arte Dorla kooperatibak egiten zituen era horretako lanak. Uztaila ezker lan ugari daude egiteko. Horrenbestez, egoera horri irtenbidea eman guran, Udala eta Arbe akordio batera heldu dira datozen hiru hilabeteetarako. "Hiru hilabeteko epea pasatzen denean ikusiko dugu aurrera egin edo beste erabaki bat hartzen den", esan digu Udaletik.




FAGOR

Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, Elk. Koop.


Gastanadul auzoa 42
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa

Tel: +34 943 719 000
Fax: +34 943 719 001



ENRIKE MAZMELA BOLINAGA HORTZ KLINIKA

Eduardo Gorosarri 3-1. esk.
Tel: 943 71 47 36
Eskoriatza




TXINTXAUN!

Ibarreko neska-mutikoak protagonista



**Ikusiko
duzu!**

TXINTXAUN
Laguntzaileak:
Aquarium, Erein, Eroski Bidaiak, Yelmo Cineplex
Babeslea:  EROSKI

Eguaztenero,
20:30ean

Aurkezlea:
Mikel Aranburu

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida


hemen bada
giro!



Matikua jatetxea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

atseden
CYBERCAFE



Araba Ibilbidea 27 Aretxabaleta Tel.: 943 79 89 91



EGVNEKO MENYAK
OTARTEKOAK ETA
PLATER KONBINATYAK

DURANA 32 • TEL. 943 792064
ARETXABALETA

Taberna Berri



gaztemenuak
preparatuak

eta burujaraitako gaita menuak
egin zure aukera

Durana 26, ARETXABALETA. 943 79 20 67

**AKEITA
Taberna**

Pintxoak eta ogitartekoak

Santa Ana 23
Tel.: 943 71 50 94
ESKORIATZA

**ZARAIA
taberna**

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95

HIRUSTA JATETXEA
Zatoz gure sukaldea ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. :; 943 79 06 57

Mitartegareai



Areantza auzoa, Aretxabaleta
943 79 17 51

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25 ESKORIATZA

**NAIRA
Taberna**

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

TABERNA

ARLUTZ

Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

**Dorleta
taberna**

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
ARETXABALETA
Tel. 943 79 94 15

ORLY

Herriko plaza
943 79 09 33
ARETXABALETA

BASABE
Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 79 91 84

**Aretz
taberna**



ORDUTEGIA:
Asteleneetik ostiralera
9:00etatik zabalik
Astebukaeretan
11:00etatik aurrera

Markole, 5 behea
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA